

ERREPRESIOAREN AURREAN LANGILE BATASUNA

Gazte Koordinadora Sozialistako kideok Herrialde Katalanetan azken egunetan jazotzen ari diren gertaeren aurrean irakurketa hau plazaratzen dugu. Aldez aurretik, gure elkartasun guztia adierazi nahi diogu azken hilabeteetan espetxeratuak izan diren militante eta herritarrei. Honekin batera, Katalunian ematen ari den salbuespen egoeraren eraginez atxilotuak eta espetxeratuak izaten ari diren manifestari guztien berehalako askatasuna galdegiten dugu. Horrez gain, setio poliziala lehen lerroan borrokatzen ari diren manifestariei gure babesak helarazi nahi diegu, baita inpunitate osoz diharduen faxismoari erantzuten ari diren guztiei ere. Txalotzekoa da burgesiaren morroiaren eta talde faxisten aurka Kataluniako herri eta gazte langileak erakusten ari diren borrokarako amore eta ausardia, baita estatuko beste zenbait lurraldetan ematen ari den erantzuna ere.

Uste dugu Kataluniako prozesu politikoa bidegurutze batera iritsi dela egunotan. Prozesuaren aurkako sententzia muntai politikoa izan dela argi geratu da, ebazpen judizialak Espainiako sektore kontserbadoreen interes politikoei erantzun dielako zuzenean. Horrekin batera, politikari katalanen aurkako ebazpenek prozesu politiko subiranista zigortzen dute, Espainiaren zati-ezintasuna indartzeko saiakera gisa. Sententzia horrek, inflexio puntu bat suposatu du Kataluniako gizarte zibilean, eta aurrez batasun forman ematen ari ziren mobilizazio eta adierazpenak hautsi egin dira. Masa zabalaren ezinegonak Kataluniako alderdi politiko burgesen mobilizazio agenda gainditu du, eta egoera horrek haustura eta kontsentsu berrituak eragin ditu. Haustura hori, oro har, gazte belaunaldien eta antolakunde demokrata burgesen artean eman da, mobilizazio forma ezberdin gisa adierazten ari dena. Era berean, ezinegon sozialak eragindako kale-adierazpenen aurkako kontsentsu berritua eman da alderdi eta aparatu burges guztien partetik, salbuespenik gabe. Baldintza normaletan ezkututzen badute ere, krisialdi egoeretan klase sozialak modu gardenean erakusten dute zer diren. Bestalde, kalean borrokatzen ari diren gazteak krisi kapitalistaren seme-alabak dira, proletarizazio prozesuan murgilduta dauden belaunaldi berriak, prefabrikatutako eslogan hutsez eta betetzen ez diren promesez nazkatu direnak.

Horrekin guztiarekin auzi nazionala ebazteko forma antagonisten agerpena mahai gaineratu da. Espainiar estatuko burgesiak ez dio utzi kataluniako burgesiarri bere estrategia subiranista burutzen eta, kapital blokeen arteko talka horren ondorioz, burgesia katalanistak eta bere adierazpen politikoei (ERC eta Junts pel Cat) errepublikaren eraikuntzarekin zuten itxurazko konpromisoa hautsi dute eta ordena sozial burgesaren zaindari gorenaren modura agertu zaizkigu. Errendizioa, estatu Espainolaren barneko estatus berri baten onarpena eta Kataluniako langileak esplotatu eta erreprimitzeko baldintzak eguneratuko dituen erreforma instituzionala da beraien jokabide politikoaren helburu erreala. Horrenbestez, talka burges horrek kataluniako aipatutako alderdiek sustengatu nahi zuten batasun nazionalaren hipotesia desagerrarazi du, nazio formaren



barnean bi proiektu politiko antagonista bizi direla garbi utziz: langile masen nazioa eta enpresarien eta politikari profesionalen nazioa. Horrek guztiak Herrialde Katalanen independentziaren gaineko bestelako ulerkerarako baldintza errealak jarri ditu eta horren adierazle da gazte belaunaldiak Herrialde Katalanen independentziaren alde burutu duten haustura politikoa, burgesia katalanistak inposatutako eduki sozial eta mobilizazio formekin talkan sartu dena. Azken adierazpen hau forma espontaneoan agertu da egunotan eta epe luzerako hausturaren baldintzak jarri ditu gure iritziz.

Katalunian gertatutakoak argi eta garbi erakutsi du Espainiako demokrazia liberalaren oinarrian dagoena: burgesiaren diktadura. Botere erregimenaren aldaketa eman edo ez, burgesiaren diktadurak jarraituko du Espainiako estatuaren oinarria izaten. Egun hauetan ikusi ditugun espetxeratzeak, militarizazio permanentek, botere judizialaren begi-bistako politizazioak, faxisten inpunitateak, espektakulu eta gezur mediatikoak eta beste hainbeste forma instituzionalek estatu espainiarraren izaera autoritarioa azaleratu dute; izan ere, horiek dira estatu burgesaren jokabideak. Horren aurrean, oinarrizko eskubideen berme bakarria langile antolakuntza dela azpimarratu behar dugu. Demokrazia liberalean ez dago oinarrizko eskubideen bermerik eta horrela gertatu da Katalunian: biltzeko askatasuna, adierazpen askatasuna, autodefentsa eskubidea, informazio eskubidea etab., ukatu dituzte sistematikoki. Oinarrizko eskubideen berme bakarria, horrenbestez, botere propioak ahalbideratzen duenaren arabera da; hau da, proletarigoaren indar antolatua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta berme gehiago izango ditugu oinarrizko eskubide horiek gauzatzeko. Horri jarraituz, ondorioz, estatu sozialista da proletarigoak askatasun politikoa izateko berme bakarria.

Honekin batera, ustezko fronte antifaxista elektoralistaren propaganda hut-sala salatzen dugu. Frogatuta geratu da antifaxismoaren mito instituzionalaren bitartez PSOEek salbuespen egoera ezarri duela Katalunian. Horrenbestez, faxismoari kontra egiteko aitzakiapean beraien programa politikoa legitimatu, botoa eskatu eta Espainiako zenbait alderdi politikoren arteko aliantza bultzatu dutenek autokritika egin beharko lukete, eta bakoitza dagozkion arduren erantzule egin beharko litzateke.

Horrelako gertakariak agerian uzten dute nazioa eta klase borroka ez direla guztiz bereizitako bi auzi, are gehiago, nazioaren barnean klase borroka ematen dela erakusten dute. Guk nazioen autodeterminazio eskubidea defendatzen dugu, baina badakigu autodeterminazio hori estatu burgesaren baitan ematen den bitartean auzi nazionala ezingo dela gainditutzat eman. Langile klasearen proiektua klaserik gabeko gizartean datza eta horrela bakarrik jarri ahal dira nazio auzia gainditzeko beharrezko baldintzak. Baina badakigu hori ez dela epe motzean eta soilik erantzun dinamiken bitartez lortu ahal den kontua. Nazio eraikuntzak epe luzera begira irauteko proiektu politiko baten beharra dauka: Estatu Sozialistaren eta botere proletarioaren eraikuntza, hain zuzen ere. Lurrealdearen antolaketa sozialistaren bitartez klasismoa gaindituko duen errealitate sozioekonomikoa ezartzea da proiektu horren helburua eta mugimendu sozialista internazionalaren beharra dauka denboran irauteko. Horri lotuta, beraz, Euskal Herriak bezala, Herrialde Katalanek estatu sozialista propioa behar dutela uste dugu, bertan existitzen den borondate nazionala forma politiko sozialistaren bitartez artikulatu eta gauzatzeko duena.

**AUTODETERMINAZIOA ETA ESTATU SOZIALISTA
HERRIALDE KATALANENTZAT**

